



ALEA

arabako aldizkaria

Izan zaitez ALEAkide

www.alea.eus/harpidetzak



ABENDUAREN 3A

**EUSKARAREN LORALDI
BERRIA ANTOLATZEN**

Euskaraz amets egin,
ikasi, idatzi, lan egin,
maitemindu, jolastu,
gozatu, sentitu...
zu zeu izan Kutxabanken
ere, **bizi euskaraz.**

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Galdetu zure bulegoan.



Abenduak 3.
Euskararen Nazioarteko Eguna

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
www.kutxabank.eus



ALEA 217

2019-11-29 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

JUANMA GALLEGO.

Aurkibidea

- 4 Herrigintzatik sortutako hiztegi berria.
- 6 Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzaina.
- 10 Euskaraldia, bigarren loraldirako prest.
- 14 Gasteizen, 'Euskaraz 1+1 Hamaika!'.
- 18 Aiaraldean, Orozko topaleku.
- 20 Gorbeialdean, Aramaio Arabako arnasgunea.
- 22 Lautadan, Euskararen Mahaia helburu.
- 24 Añanan, eguna hilabete bihurtu dute.
- 26 Mendialdean, Euskaraldirako prestatzen.
- 28 Trebiñun, Udala bustitzeko prest.
- 30 Arabako Errioxan, sortzaileen lana, ikastetxera.
- 31 Abenduaren 3an, ipuin liburu bat aurkeztuko du ALEAk.
- 33 Denbora-pasak.
- 34 Agenda.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzaileak

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 5.000 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.
Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako
orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Herrigintzatik sortzen den hiztegi berria

Euskararen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, ekimen mordo antolatu dira Araba osoan zehar. Datorren urtean izango den Euskaraldiaren bigarren edizioaren nondik norakoak aurkezteko baliatu dituzte ere data berezi hauek. 'Ahobizi' eta 'belarriprest' rolak ez ezik, oraingoan 'ariguneak' ere egongo dira.

Testua: **Juanma Gallego.**
Argazkia: **Erlantz Anda.**

Eguberri giroa ez ezik, urtearen amaiera euskal itxura hartzen hasia da: abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Egunari iaz Euskaraldia gehitu zitzaion. 1949an Eusko Ikaskuntzak martxan jarri zuenetik, ondo errotutako eguna da lehena. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, kalean zein erakundeetan. Gainerako Euskal Herrian, kaleetan eta euskadunen gogoan. Bigarren ekimenari dagokionez, lehen edizioa besterik ez du egin oraindik Euskaraldiak, baina ezin uka estreinaldi bikaina izan duenik. Geurean, parte-hartzeari dagokien zenbakiak ikustea besterik ez dago: 325.000 biztanle inguru dituen herrialde batean, 20.279 arabar modu aktiboan aritu ziren euskararen alde. Zehazki, 12.896 ahobizi 7.383 belarriprest. Balorazioak balorazio, Arabaren egoera soziolinguistikoa ezagututa, itxaropenerako zenbakiak dira horiek. Aurten Euskaraldirik ez, baina iazko ariketari buruzko gogoeta eta datorren urtekoari begirako prestaketak hasiak dira dagoeneko.

Lehen xehetasunak ere ezagutzen hasiak dira. Ariketaren oinarri nagusia bere horretan mantenduko da: *ahobizi* eta *belarriprest* gisa aritzeko aukera egongo da. Esan beharrik ez dago, bi hitz horiek gogotik errotu dira euskaldunon eguneroko hiztegian. Bigarren edizioari begira, baina, talde kutsu handiagoa eman nahi izan diote ekimenari, eta herrigintzari esker sortzen ari den hiztegian ekarpen berria egin dute. Apuntatu ondo kontzeptua, gero eta gehiago entzungo baita: *arigune*. Hitz horren bitartez deskribatu nahi izan dute euskararen aldeko tresna erabilgarria bihurtzea espero den



kontzeptu berria. Hori izango da, beraz, Euskaraldia 2.0-ren berrikuntzarik nabarmenena.

Barne zein kanpoko

Talde lana indartzeko filosofia horren barruan, entitateei begirako kontzeptua da *arigunea*, eta izenak berak helburuaren zantzua aurreratzen du: funtsean, euskaraz aritzeko guneak izango dira. Euskaraz eroso aritzeko espazioak, hain justu. Enpresak, instituzioak, kooperatibak edota kirol elkarteak izango dira gune horien bermatzaileak. Maila teknikora jaitsita, ekimenaren sustatzaileek bi motakoak izango direla aurreratu dute. Batetik, barne ariguneak, leku eta talde itxietan gauzatuko direnak. Horietan, baldintza bakarrak izango dira denek euskaraz ulertzea, eta bertan dauden %80 ados egotea. Bestetik, kanpo ariguneak egongo dira: herritarrei begira lanean ari diren erakundeetan sortuko diren espazioak dira. Horiek uneoro euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatuko diete hala nahi duten herritarrei.

Lehen izen-emateak martxan daude. Irailean ireki zieten hori egiteko aukera herri batzordeei. Horietan oinarritu zen, hein handi batean, iaz egindako lan eskerga. Orain, berriz, entitateek izena emateko epea irekita dago. Norbanakoek, ordean, itxaron beharko dute: 2020ko irailean zabalduko dute herritarrentzat izena eman eta *ahobizi* edo *belarriprest* rolak hautatzeko epea. Bitartean, abenduaren 3aren inguruan prestatu diren ekimen sortarekin disfrutatzeko unea da oraingoa. ■■■

Euskararen egunaren inguruan hainbat ekimen errotzen ari dira: Gasteizko kandelen gaua da horietako bat.





"Ekarpen praktikoa izango da euskara iraunaraziko duena"

ROBERTO GONZALEZ DE VIÑASPRE EUSKALTZAINA

Euskal gizarteak dituen hizkuntza beharretara egokitzea du helburu Euskaltzaindiak, eta bide horretan lanean dabil Roberto Gonzalez de Viñaspre, buru den Onomastika atalean. Toponimoetan, errealitate linguistiko guztietarako irizpide bilduma osatzea dute erronka hurrengo urtebetean.

Testua eta argazkia: **Anakoz Amenabar.**

Arabako toponimia historikoa da Roberto Gonzalez de Viñasprek (Bilbo, 1961) gehien landu duen ikerketa esparrua, eta arreta bereziarekin Trebiñukoa. Hantxe bizi izan da gaztetatik, eta hura du erreferente nagusia gaur egun ere.

Administrazioaren aldetik konderrian euskarak bizi duen "ukazioa" atsekabez bizi du, normalizaziorako bidean poliki-poliki ematen ari diren pausoak nabarmendu baditu ere.

Euskaltzain izendatzeko sarrera-ekitaldia, joan den maiatzean, Trebiñun egitea aukeratu zenuen. Momentu historikoa izan da hori.

Egun zirragarria izan zen niretzat, emozioz betea. Ez nuen duda izpirik izan Trebiñun izan behar zuela eta hango euskarari buruz. Euskarak duen historiaren aipamena egin nuen gaur egunera arte etorrita, eta ezin nuen esan gabe utzi euskarak Trebiñun Administrazioaren aldetik pairatzen duen egoera tamalgarria. Euskal Herrian ondo dakigu euskarak oso estatus diferenteak dituela, eta Trebiñun errealtate ukatua da, espresuki ukatua. Gaztela eta Leongo erakundeetatik ukatu nahi izan dute, aukera izan dutenetan, euskara inoiz hitz egin denik. Eta hori gezurtatzeko hor dago, esaterako, toponimia.

Ez dute hizkuntza bat aberastasun modura ikusten?

Ikusmira estu hori pobrezia eta intolerantzia seinale besterik ez da. 2000. urtean Trebiñuko Udalak lehenengo urratsak egin zituen, eta, esate baterako, erabaki zuen udaletxe barruko xafila guztiak bi hizkuntzetan izan behar zirela. Gaur egun nekez gertatuko zen orduko zalaparta. 2008an beste pauso bat eman eta herri guztietako kale izenak bi hizkuntzetan jarri ziren. Eta normaltasun osoz ikusten da egun. Aurrera egindako urratsak dira.

Normalkuntzaren bidean hartutako neurriak oraindik "inposizioa" direla diote hainbatek. Zer egin?

Jakintasan falta bada, pedagogia gehiago. Eta bestela elkarbizikidetzaren aldeko apustua; sinisten dut goitik behera hizkuntzak direla

komunikazio kodeak, eta, beraz, harremanak sendotzeko tresna direla, eta ez konfrontaziorako. Bi hizkuntzak darabiltzaten hiztunekin begirunea izan behar da. Eta euskarak izan behar du osorik komunikazio tresna bat, "noranahikoa" Lizardik esaten zuen moduan, normaltasunez txertatua gure gizartearen esparru guztietan. Garbi dago nabarmen ahul dagoena euskara dela gaur eta hemen, eta oreka horretara ailegatzeko euskarak egon behar du gaztelaniaren parean.

Euskararen Eguna ospatuko da asteartean.

Mugarri bat da egun hori gure ibilbidean, erreferentzia bat, baina nik egunerokoan sinisten dut. Euskarak izango du hiztunok ematen diogun tokia, eta hori da benetan kezkatzen nauena; adin guztietan egitekoa da. Globalizazioaren garai hauetan, gazte jendeak sentitu behar du euskara ekarpen bat dela alde praktikotik. Niretzat, esaterako, euskarak du sekulako balio sinbolikoa, baina euskararen normalizazioa ez du horrek ekarriko. Batzuk ezagutu dugu euskara ukatua zegoen garaia eta ahalegin pertsonala egin dugu ez genekien hizkuntza hori ikasteko, baina egungo gazteengandik errealtate horiek oso urrun daude. Ekarpen praktikoa izango da euskara iraunaraziko duena, eta, besteak beste, gazteek eskura duten eskaintza digital amaigabe horretan hainbat produktu eskaintzeko ahalegin berezi bat egin behar da.

Gizartearekin batera doa Euskaltzaindia?

Erakunde guztien erronka da gizartearekin bateratsu joan beharra. Neurri handi batean, gidalerroak ematea da Euskaltzaindiaren lana, aholkuak ematea arauak baino gehiago; alegia, hizkuntza izango da euskal gizarteak nahi duena, eta bihar-etzikoa euskara izango da hiztunok darabilguna eta usadioaren bitartez gauzatzen dugun hori. Euskaltzaindiari dagokio euskararen berezko ezaugarri batzuen berme ematea eta eguneroko erabileran sustraitzen diren erro sendoak jartzen dituzten horiek aintzat hartzea. Eta, zorionez, monolitikoak ez garanez, gure eztadaidak izaten ditugu alde eta kontra.



DARABAGU
ARABA EUSKARAZ 2020 AMURRIO
EKAINAK 14



Esaterako, "bokata" onartu du Euskaltzaindiak, gurean txertatuta dagoen hitza delako eta euskararen parte delako. Ez onartzea errealitatearen kontra egitea litzateke.

Onomastika atalean, leku izenak aztertzen dituzu. Buruhauste asko ematen dituzte?

Leku izenei ere errespetu bat sor zaie, euskaldunon betebeharra da hori hurrengo belaunaldiei ere eskuratzea. Horietan aldaketak egitea ezin dezake oinarri izan demagun hogeit urtean nola itxuraldatu den. Batzutan ahozko tradizioa nabarmen aldentuta dago idatzizko

"BIHAR-ETZIKO EUSKARA IZANGO DA EUSKAL HIZTUNOK DARABILGUNA, EUSKAL GIZARTEAK NAHI DUENA"

"GARBI DAGO NABARMEN AHUL DAGOENA EUSKARA DELA GAUR ETA HEMEN"

erabileratik, eta asko zailtzen du onomastikaren jakintza esparrua. Aramaion *Etxaguen* auzoa dena *Etxan* bada ahoz, zilegi da ahozko erregistrarako, baina izen horiek errotulatu behar badira horiek idatzizko erregistrora jotzen da. Zorionez lan handia egin da azken hogeit urteetan baina ez da lana bukatu.

Hainbat eztabaida izan da; 'Guardia-Biasteri' izenekin esaterako.

Biasteri izenaren alde egin zen garai batean pentsatuta hori zela jatorrizko forma. Ikerketaren bitartez jakin da gaur eguneko *Viñaspre*-tik zetorrela *Biasteri*, eta gainera grafia akats batekin. Lagran inguruan, halaber, *Guardiabide* toponimoa aurkitu da. Orduan konturatu zen Onomastika batzordea bertan behera geratu zela ordura artekoa. Beste adibide bat izan daiteke

Baños de Ebro; 1978an hobetsi zen zilegi zela zenbait leku-izen itzultzea; hori gaur egun ez da inondik inora onargarria, baina orduan analogia erabiliz *Mañueta* sortu zen eta arrakasta handitsua izan duen izena da, nolabait gizarteratu dena. Nahiz eta gaur egungo ikuspuntutik hori ez litzatekeen egingo, eta jakinda ere hori ez dagoela dokumentatuta, uste dut aski dela hamarkada hauetan herritarrek izen hori bere egin dutenean izen hori geratzeko eta eskubide osoz. Garaian garaikoa.

Pedagogia lana ere garrantzitsua izango da, ezta?

Funtsezkoa da, nire ustez. Halako eztabaidak Araban gertatzen ari dira aurrera egiten ari garelako ikerketan eta dokumentazioan. Itxurazko kontraesan horiek ager daitezkeen arren, tokian tokikoek ondo jakin behar dute, eta ñabarduraren bat baletor hori argi eta garbi azaldu behar da.

'Kantabria' edota 'Toloño' mendilerroak ere eman du zeresana.

Oso ondo dokumentatuta dago *Kantabria* moduan gaur egun duen indarrarekin noiz zabaltzen hasi zen; 1960ko hamarkadara arte ez da zabaltzen hasten, eta nahikoa da udal aktak begiratzea. Zein da herri batek idatziz sortu dezakeen dokumentaziorik gertukoena? Tokian tokiko udalarena. Bistan da *Toloño* dela jatorrizko forma, ahuldutako forma, baina gaur egunera arte iritsi dena bai ahoz eta baita idatziz ere. Ez da egoskorkeria kontu bat. Euskaltzainditik gomendioa da benetan tradizio kontrastatuari eutsi behar zaiola. Gero zein izen erabiliko den? Gizarteak nahi duena, argi eta garbi.

Zer lan duzue orain Onomastika sailean?

Gure lanean ezinbesteko erraminta da irizpide bilduma, eta eginkizun ditugunetan nabarmentzekoa da. Tipologia zabaltzen doa eta ñabardura gehiagoren beharrez dago, kohesio bat eman behar da, Euskal Herri osorako eta errealitate linguistiko guztietarako irizpide bilduma osatu behar dugu. Urtebeteko epean, hori landu eta berrikustea da erronka nagusietako bat. ■■■



BIDELAGUN IZATEA

LABORAL Kutxaren arabera

Beste pertsona batekin edo batzuekin joatea edo egotea omen da bidelagun izatea. Baina, LABORAL Kutxan zerbait gehiago dela uste dugu. Une oro ongi aholkatzen jakingo duenen bat ondoan izatea. Horixe da bidelagun izatea.

EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAEa

ZUREKIN EBOLUZIONATZEN DUTEN AURREIKUSPEN-PLANAK

- Zuri egokituak erretiro-egunera arte
- Zure neurrirako inbertsio dibertsifikatua
- Helburu bat: aurrezkien etekina hobetzea
- Ekarpen bakoitzak* onura fiskalak ditu



* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiek abarritala fiskalak dituzte. EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu parte-hartzaileentzako funtsotzko datuen agiria gure bulegoetan edo webgune honetan:

<https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularak/aurrezkia/planak/aurreikuspen-planak>



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat



Asteazkenean egin dute Gasteizko Euskaraldiaren aurkezpen ofiziala, Oihaneder Euskararen Etxean. ALEA

Bigarren loraldirako prest

Lehen Euskaraldiak hirian izan zuen "eragin positiboa" nabarmendu dute gaiaren harira egindako ikerketa soziologiko baten bitartez. Hurrengo urteari begira lehen prestaketak ere martxan jartzen hasiak dira jada.

JUANMA GALLEGO

Urtebete igaro da hiriak euskararen aldeko ariketa masiboari ongiatorria egin zionetik, eta urtebete inguru falta da berriz ere bigarren saiakeran murgiltzeko. Tarteko puntu honetan, Gasteiz *Euskaraz 1+1 Hamaika!* programan murgilduta dago, buru-belarri. Halere, iaz Euskaraldian gertatutakoari buruz eta datorren urtean gertatu behar denari buruzko gogoeta egiteko une egokia da. Ebaluazioa egitea indarrez aurrera egiteko modurik onena delako, hain justu.

Euskaraldia hasi berritan ikusi zen gauzak bide onetik

zihozazela. Orduko Gasteizko Euskaraldiaren arduradun Oier Azkarraga oso pozik zegoen ordenagailuan ikusten zituen zenbakiekin. "Espero genuen baino parte-hartzaile gehiago izaten ari gara, eta jendeak oraindik izena ematen jarraitzen du", azaldu zuen Azkarragak ordura arte paperean besterik ez zegoen egitasmoa kaleetan gauzatzen eta gorpuzten ikusteak ematen zuen pozarekin. Artean zaila zen, baina, benetako eragina zehaztea, ez bazen norberaren esperientzia pertsonaletik abiatuta. Zenbaki gordinetara joanda, Gasteizen 12.937 lagunek eman zuten izena Euskaraldian. Horietatik bi

herenek (8.813) *ahobizi* rola hartu zuten, eta gainerako herenak (4.624), berriz, *belarriprest*-arena.

Hasiera hasieratik, baina, antolatzaileek argi izan zuten horrelako ariketa batek ebaluazio egokia behar zuela, eta duela gutxi ezagutarazi dira azterketa horren emaitzak. Soziolinguistika Klusterra arduratu da datuen irakurketa egiteaz. Orohar, Euskaraldiak hirian "eragin positiboa" izan zuela ondorioztatu dute lan horretan. Hau Euskal Herri osora zabaltzeko daitekeen ondorioa izanik, Gasteizen kasuan beste ondorio garrantzitsu bat atera dute: euskaraz aritu ohi diren

lagunengan ez ezik, eragin hori euskara gutxi erabiltzen dutenen artean ere izan da.

Zifra txukunak

Txostenean zehaztu dutenez, hizkuntza gaitasun maila desberdin guztietan "areagotu" da euskararen erabilera hirian. "Epe motzean, hamaika egunetan nabarmena izan da euskararen gorakada euskara gehien hitz egiten dutenen artean, eta, epe luzera, hiru hilabete pasata ikusten da egonkortu direla zifra horiek", azaldu du Soziolinguistika Klusterreko teknikari Uxo Anduagak. "Hamaika egun horietan hartu ziren ohiturak eta euskara gehiago egiteko joera horietako batzuk mantendu egin dira. Jendeak neurri batean bereganatu ditu ohitura horiek".

Datueta joanda, Euskaraldia baino lehen %44 ziren euskara ulertzen zuten "guztiei" edo "gehiengoari" euskaraz zuzentzen zirenak. Euskaraldian zehar, kopuru hori %75 izatera igaro zen. Hiru hilabete pasata, portzentajea %51ra jaitsi da, hasieran baino %7 gehiago, hain zuzen.

Anduagaren esanetan, Euskal Herriko datuek erakusten dute euskara gehien erabiltzen dutenen artean bereziki nabarmena izan dela eragina. "Baina Gasteizen eragin hau

EUSKARALDIAREN ERAGINA NABARITU ZEN EUSKARA GUTXI ERABILTZEN ZUTENEN ARTEAN ERE

atzeman daiteke ere gutxien erabiltzen dutenen artean. Hala, Euskara batere erabiltzen ez zutenak murriztu egin dira Euskaraldiaren eraginez. Euskara erabiltzen ez zuten horiek jo dute gehiago haien egunerokotasunean euskara gehiago hitz egitera", azpimarratu du.

1.054 erantzun

Espazioei dagokienez, ahobizi rola hartu dutenen artean, bai Euskaraldian zein epe luzera begira familian eta lantokian izan da eragin handiena. Belarriprest modura aritu direnen artean, berri, lagunartean eta ikaslekuan egin dute euskara gehien Euskaraldian zehar. Epe luzera begira, ikaslekuan mantendu da eragina, baina lantokietara ere zabaldu da.

BIZI LAN.eus

ARGITU ZURE ZALANTZAK KLIK BATEZ
Ezagutza da aldaketarako lehen pausoa



www.bizilan.eus



NORENTZAT?
Bizilan.eus webgunea, langileria osoari baliagarriak zaizkien informazioak ezagutarazteko sorturiko tresna da.

"Langile" hitza erabiltzen dugunean, lanean, langabezian, erretiratura edo ikasten dauden pertsonen inguruan hitz egiten ari gara, eta horregatik, Bizilan webguneak kolektibo hauen guztien egoerak hartzen ditu kontuan.

ZER AURKITUKO DUGU?
Langileen eskubideen inguruko informazio argia aurkituko duzu Bizilan-en; ohiko zalantzak, kolektibo bakoitzaren eskubideak, informazio gehigarria...

**EMAN PAUSOA
ZURE ESKUBIDEEN ALDE!**



Hiru galdetegi baliatu dituzte ikerketa osatzeko, une desberdinetan eginda: Euskaraldia hasi aurretik, ekimena amaitu berrian eta handik hiru hilabetera. Ekimenaren eraginak taxuz jaso ahal izateko, hiru galdetegiak bete dituztenen datuak baino ez dituzte erabili.

Euskaraldian zehar 12.937 gasteiztarrek izena emana bazuten ere, ikerketa egiteko azaroaren 23a baino lehen izena eman zutenen kopurua hartu dute erreferentzia gisa: 10.985 lagun izan ziren. Horietatik 1.054 lagunek galdetegiak bete dituzte. Erantzun horietan oinarritu dituzte emaitzak. Lagin handia izan arren, galdetegia borondatez bete izanagatik metodologia aldetik egon zitezkeen alborapenak ere

zuzentzen saiatu dira ikertzaileak. Erantzuna eman dutenen %77,6k (818 lagun) ahobizi rola hartu dute, gainerako %22,3 belarriprest izan direlarik. Generoaren arabera, emakumezkoak nagusi izan dira (% 69,2), gizonaen aldean (%29,8). Adinari dagokionez, 35-49 urte artekoak izan dira nagusi. %65 urtetik gorakoak %0,6 besterik ez dira izan. Ekimenaren eragina kuantifikatzeaz gain, herritarren iritzia eta ideiak jaso nahi izan dituzte ikerketaren bitartez.

Bigarrena prestatzen

"Euskaraldiaren bigarren edizioan gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egingo da euskaraz", aurreratu dute antolatzaileek aurten aukeratutako leloa berretsita.

Talde izaera indartzeko filosofiaren barruan, berritasun nagusiena *ariguneak* izango badira ere, ohiko *ahobizi* eta *belarriprest* rolek iazko protagonismoa mantenduko dutela ohartarazi dute Gasteizko aurkezpenean. Ariketa sozialean egun gehiago emateko aukera egongo da gainera, 15 egunetara luzatuko dutelako: 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da. Asteazkenean egin dute aurkezpen ofiziala, erakundeetako ordezkarien, euskaingintzako kideen eta auzoetako herritarren babesarekin. Lehen prestakizunak abian dira beraz. Orain antolaketa lanekin aurrera egiteko unea da, hemendik urtebetera negu bete-betean euskararen loraldia berriro gerta dadin. ■



**APROBETXATU
AUKERA HAU!**

BLACK FRIDAY

AZAROAREN 12 TIK 30 ERA ARTE



**ZATOK
EUSKALTELERA**



200
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



AISIA
TBa
ANDROID 4K

14'9€
/hil
6 hilabetez

www.euskaltel.eus | Dendak | 900 840 242



euskaltel

Zatok Euskaltelera 2019/11/30 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau.
Irakurpen-konpromisoa: 12 hilabete besterik ez. Gero, prezioa 63€/hil izango da. Prezioek sartuta dute
BEZa (2019/12/22tik aurrera egongo dira indarrean). Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:





Oihaneder Euskararen Etxean egin zuten euskara sustatzea helburu duen ekimen sortaren aurkezpena. ALEA

Euskararen berezko aritmetika

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Udalaren eta Aldundiaren laguntzaz, ekitaldi sorta zabala egiten ari dira Gasteizko euskalgintzako talde eta erakundeak. 'Euskaraz 1+1 Hamaika!' leloa aukeratu dute aurten.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Urtez urte indartzen doan ekimena. Ez da maiz erabiltzen den topiko horietako bat, zenbakietan oinarritutako errealitatea baizik. Izan ere, urte batetik bestera ekimenen kopurua handitzen doa, eta gora doa, baita ere, ekitaldietan izaten den parte-hartzea.

Zenbakiak aipatuta, horiekin jolasten jarraitu dute. *Hamaika Ber bi* izan zen iaz aukeratutako leloa, eta aurten aritmetikarekin jarraitu dute: *1+1 Hamaika!*

Berdin biderketa ala batuketa izan, euskararen berezko aritmetikak beti izaten du gorantza doan emaitza egokia.

"Euskara gure egin eta gure buruak euskaldun bihurtu". Hori da ekitaldi hauen atzean dagoen erronka nagusia, Lexuri Ugarte Aldundiko Euskara zuzendariaren hitzetan. "Horrela guztion artean euskara indarberritu eta ahaldunduko dugu". Abenduaren 3an ez ezik, egunero euskara erabiltzeko beharra azpimarratu du.

Gasteizko Euskara zinegotzi Iñaki Gurtubaik hirian euskararen erabilera bultzatzeko beharra azpimarratu du. Horretarako, euskalgintzako elkarteek ekarpenak kontuan hartu direla azaldu du. Ideia hori buruan, "hainbat ekintza antolatu ditugu: ekintza kulturalak, merkataritzaren inguruan edota kirolaren ingurukoak". Agian modu isolatuan ekintza horiek ez dute egoera irauliko, baina aritmetikak emaitza indartsua izango du: hamaika. ■



Azaitz Unanue **GEU Elkartea**

"Kantari ekimena antolatzen parte hartu dugu. Haurrei bideratutako ekimen parte-hartzailea da. Koreografia bat

proposatu behar dute, eta horiek grabatu egiten dira gero, eskuragarri egoteko. Gasteizko eskola askotako haurrak egon dira. Oso pozik gaude harrerarekin, gero eta handiagoa baita".

Bergoi Madernaz **Bai Euskarari**

"Gure aurtengo ekarpena bereziki merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzera bideratu dugu. Horretarako,

zozketa bat martxan jarri dugu, urrian zehar. Bestetik, urtero bezala, mintzodromo bat antolatu dugu, Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko".



Imanol Pradells **Leocadia Zabálade**

"Arlo soziokomunitariotik maiztasun txikiko gaixotasunak bistaratzea da Leocadia Zabálade elkartearen

helburua, eta batez ere baliabideak lortzeko ekintza soziokulturalak egiten ditugu. Ekimen honi begira, *Izan zaitez neu* izeneko kontzertua antolatu dugu, Jimmmy Jazz aretoan".

Iker Durana **Oihaneder**

"Euskarazko kultura digitalaren jardunaldiak antolatu ditugu aurten, nerabeei zuzenduta. Hainbat

ikastetxetako ikasleak izan ditugu. Helburu nagusiak izan dira euskarazko kultura digitalaren suspertzea eta euskarazko softwarea ezagutaratzea. Arrakasta handia izan du jarduerak".



emun

EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | BILBO

www.emun.eus



Joane Jimbert Sarburu Kultur Elk.

"Aurten Salburuan bereziki kirolaren munduan indarra egin nahi izan dugu, eta horren inguruko ekintzak antolatzeari ekin diogu. Horretarako, kirol

talde desberdinekin hitz egin dugu, eta laguntza eskatu diegu euskararen alde. Besteak beste, trinketea egin dugu eta auzo etxeko kristala margotu dugu. Pilotaren inguruko *master class* bat ere egin dugu".

Manuel Moreno Arabagara Topagunea

"Eskaintza aberasgarria izatea bezain garrantzitsua da hori ondo iragartzea. Erdarazko kultura iristen zaigu, gu bila joan gabe, baina euskarazkoan

ahaleginak egin behar ditugu euskaldunengana iristeko. Euskal sortzaileek haien hartzaille potentzialengana iristea bultzatu nahi dugu. Ideia hori gogoan, gazteei begirako elkarrizketa musikatuak antolatu ditugu".



Uxue Diaz de Zerio Arabako Bertsozale elk.

"Jakina da bertsolaritza eta euskara elkarrekin eskutik helduta doazela, eta guk, nola ez, ekimen honetan gure

ekarpena egin nahi izan dugu. Horretarako, Jimmy Jazz aretoan bertso saio bat antolatu dugu. Bertan bertsolaritzaren munduko izen handi batzuk parte hartu dute".





**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**




Bº Arraga, 2 / Aramaio
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 jj.iturrieta@Yahoo.com
 iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
 ☎ 945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU



Kuartango
 SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
 Zuhatsu-Kuartango 21
 t.699 747 730 · 945 362 683



Arabak,
arabako sagardoa!

Orozko aukeratu dute biltzeko

Egun osoko egitaraua prestatu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak abenduaren 1erako. "Eskualdeko euskaltzaleen topaketa" izango da, aurreratu dutenez.

AIARALDEA.EUS

Amurrión, Urduñan eta Laudion ospatu da Aiaraldeko Euskararen Eguna azken hiru urteetan, hurrenez hurren. Aurten, aldiz, Orozkon (Bizkaia) egingo dute. Abenduaren 1ean –igandea– izango da hitzordua eta egitarau zabala prestatu dute bertako euskaltzaleek.

Herriaren hautaketa ez da nolanahikoa izan. Orozko UEMAN –Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea– sartu da aurten. Erakunde horren parte izateko baldintza soziolinguistikoko bat bete behar dute udalerriek: euskaldunen indizea %70etik gorakoa izatea. "Orozko da bertan sartzea lortu duen eskualdeko udalerri bakarra", azaldu dute Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideek, "horregatik erreferentzia iruditu zaigu eskualdean, eta nabarmendu nahi izan dugu".

Ahobizi eta belarripresten dinamikaren kolofoi gisa baliatu dira Aiaraldeko Euskararen Egunaren azken bi urteetako edizioak. Aurten,



Laudion ospatu zen iaz Aiaraldeko Euskararen Eguna. AIARALDEA.EUS

aldiz, ez dago horrelako kanpaina indartsurik. Hala ere, egitarau oparoa prestatu dute hurrengo igandean, hilaren 1ean. Goizean, haur, nerabe zein helduentzako jolasak izango dira nagusi. 13:30ean koreografia erakustaldia egongo da eta, jarraian, Arratiako bertso-eskolako kideen saioa. Ondoren egingo da eguneko ekitaldi nagusia, eta herri bazkaria atonduko da gero.

Amaitzeko, kantaldia, erromeria, gaztaina eta txokolate jana, eta zinema emanaldiak egongo dira, arratsaldean, besteak beste.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak azaldu duenez, eskualdeko euskaltzaleak biltzeko topaketa izango da: "Ahobizi eta belarriprest guztiak elkartu nahi ditugu euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko". ■■■



Azaroaren 23tik abenduaren 6ra

www.amurrio.eus



URKABUSTAIZEN

EUSKARAK

365

EGUN



Aramaio, Arabako arnasmune

Gorbeialdeko hainbat udalerritan ekintzak antolatzen ari dira Euskararen Egunaren bueltan; tartean, azaroaren 29an, Arnasa Gara ekimenaren aurkezpen ekitaldia egingo dute Aramaion.

MIRIAN BITERI

Arabako kuadrilla euskaldunetarikoa da Gorbeialdea, eta Gaindegia Euskaraldiako parte-hartze datuak hartu eta zenbakitara ekarrita hori erakusten dute. Asteotan aurkeztutako datu horiek honakoak dira: Aramaion, 341 lagunek parte hartu zuten ia; Legution, 280; Zuian, 241; Urkabustaizen, 226; Zigoitian, 198 eta Arratzua-Ubarrundian, 70.

Datuek, dena dela, agerian utzi dute euskararen normalizazioaren bidean oraindik ere asko dagoela egiteko, eta horregatik, hainbat ekintza ari dira prestatzen Euskararen Egunaren bueltan Aramaion, Zuian, Legution eta Urkabustaizen; Zigoitian eta Arratzua-Ubarrundian ez dago ezer aurreikusita.

Jarduera guztien artean, aipatzekoa da azaroaren 29an, osteguna, Aramaion egitekoa dena: Arnasa Gara kanpainaren aurkezpen ekitaldia izango dute 18:00etan, herriko kultura etxean. Aramaio udalerria UEMA-n, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, dago



Aramaio udalerriko alkate Lierni Altuna izan zen Arnasa Gara ekimenaren aurkezpenaren. IREKIA

sartuta eta euskararen arnasmune moduan identifikatuta dago, eta ostegunean arnasmunek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratuko dute; aldi berean, abenduan aurkeztuko den serie digitalaren aurre-estrenaldia egingo dute, eta aktoreekin solasaldia.

**ARNASGUNEK
EUSKARAREN
BIZIBERRITZEAN DUTEN
GARRANTZIA
AZPIMARRATUKO DUTE**

Arnasa Gara proiektuaren helburua da euskararen arnasmuneetako biztanleen ahalduntzea, aitortza eta kontzientiazioa indartzea, jabetu daitezkeen gune horiek euskararen indarberritzean duten garrantziarekin. Ekimenak bi fase ditu: lehenengoa arnasmuneen ahalduntzea eta aitortza bilatzen da. Horretarako, hilabeteotan Euskal Herriko 22 udalerritan bertako eta inguruko herritarrentzako aurkezpen saioak egiten ari dira; Araban, Aramaion baino ez da horrelakorik egingo. Bigarren fasean, Euskal Herri osora zabalduko da, arnasmuneen



errealitatea eta garrantzia ezagutzera emateko.

Ruper Ordorikaren kontzertua

Horrez gain, badaude bestelako ekimenak Aramaion.

Iganderako, abenduak 1, herri lasterketa antolatu dute 12:00etan, plazan. Abenduaren 3an, ostera, eskola izango da protagonista: 11:15ean, Kantuz bizi saioa eskainiko dute Alaiak erretiratuen elkarteak eta ikasleek; eta 14:00ean, ipuin kontalaria izango da herriko liburutegian. Amaitu aurretik, kontzertu berezia izango dute abenduaren 8an, igandea, 19:00etan: hain justu ere, Ruper Ordorika oñatiarra igoko da egun horretan kultura etxeko agertokira. Sarrera bost euroan dago salgai.

Baina, Aramaion ez ezik, bestelako udalerrietan ere



Ruper Ordorika musikari oñatiarrak joko du abenduaren 8an, Aramaion. GOIENA

jarduerak antolatzen ari dira. Urkabustaizen, Fermin Muguruzaren *Black is beltza* filma ikusteko aukera izango da abenduak 1ean, 19:00etan, kultura etxean. Beste hainbat herritan bezala, Euskaraldirako prestatze lanetan ere murgilduko dira han. Legution,

Euskara Plaza ekimena egingo dute abenduaren 3an, 18:30ean, plazan; bertako elkarteak eta norbanakoek bertsoak, abestiak eta bestelakoak kantatzean datza ekimen hori. Zigoitian, azkenik, bertso-glosa saioa dago aurreikusita abenduaren 6rako. ■



legutioko udala

legution euskarak

365 egun ditu!

Euskararen Mahaia helburu

Gizarte eragileak eta instituzionalak Lautadako Euskararen Mahai batean biltzeko erronkari eutsiko diote Kuadrillan; bide batez, hizkuntz ohiturak aldatzeko metodologia berriak ezarriko dituzte.



Iaz egin zuten Lautadako Euskararen Komunitatearen lehen batzarra. LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Euskaralditik harago joan nahi dute Lautadan, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko metodologia desberdinak abian jarriko dituzte hurrengo bi urteetan eskualdeko entitateetan. Gainera, Kuadrillako zortzi udalekin lanketa espezifikoarekin egingo dute, euskararen erabileran eta sustapenean oinarri komunak adosteko. Helburua, Lautadako Euskararen Mahaia sortzea da, eragile sozialak eta instituzionalak bilduta.

Ostegunean, Lautadako Euskararen Komunitatearen bigarren batzarra egin dute, Dulantzin. Hurrengo bi urteetarako lan ardatz nagusiak onartu dituzte. Asier Lafuentek azaldu duen moduan, Euskaraldiarekin aurrera

jarraituko dute Lautadan hurrengo urtean ere, baina zerbait gehiago egiteko gaitasuna dutela ikusi dute. "2020ko Euskaraldia ez dadin izan helburu bakarra, metodologia desberdinak inplementatu nahi ditugu Kuadrillako enpresetan, elkarteetan eta baita eremu afektiboan ere, hizkuntz ohiturak aldatzen jarraitzeko".

Hausnarketa prozesua

Lafuentek aipatu duenez, ekainean hausnarketa prozesu bat abiatu zuten Lautadako Euskararen Komunitatean, azken bi urteetan egindakoa baloratzeko eta hurrengo bi urtetako norabidea markatzeko. Lautadako 135 lagunen iritzia jaso dute, galdeketa baten bitartez, eta 40 lagunekin egindako bost bilera-gogoeten

bitartez. Iritzi kolektiboa jaso ondoren, prozesu honi amaiera eman diote, eta emaitzak osteguneko batzarrean aurkeztu dituzte, hurrengo bi urteetarako proposamenarekin batera.

Duela bi urte abiatu zen lana

2017an Lautadako eragile sozialak, hizkuntza ohiturak aldatzea helburu, Lautadako Euskararen Komunitatearen izenpean batu ziren. Entitatea oinarri hartuta, Lautadako kolektibo, lantegi, establezimendu eta herrietako eragileak elkartu ziren eskualde mailan elkarrekin lan egiteko: 40 herritako eragileak eta 20 entitateen ordezkariak, guztira 107 lagun. Hasierako batzar hartan erabakiak hartu zituzten, bi urte hauetan Euskararen Komunitatearen norabidea

markatu dutenak. "Elkarlana bilatu nahi genuen Lautadako zortzi udalekin eta Kuadrillarekin, eskualde ikuspuntutik modu koordinatu batean Euskaraldia antolatu nahi genuen, lan boluntarioa eta profesionala uztartzea beharrezkoa zen eskualde mailan funtzionatu ahal izateko". ■■■

Euskararen Egunarekin, hainbat hitzordu

Agurainen eta Burgun Euskararen Egunaren harira hainbat ikuskizun antolatu dituzte. Burgun, igande honetan, musika eta dantza izango dute Landederra kiroldegian, Raizti DJrekin; eta abenduaren 4an, ludotekan, Xalto pailazoaren aktuazioa, 18:30ean. Agurainen, berriz, igandean, 'Harria' ikuskizuna aurkeztuko dute Andra Mari plazan, 12:30ean. Abenduaren 3an, goiz osoan izango dira ekitaldiak: 'Ganbaran' antzezlan, herri kirolak, mintzodromoa, Mikel Egiluz DJa; eta 14:30ean 'Bua Txabal' bakarriketa. Hurrengo egunean, abenduaren 4an, 19:00etan, Zabalarten, *Bakean dagoena bakean utzi* bakarriketa izango da; eta hilaren 21ean, musika ikuskizuna Harresi aretoan.



Lizarralde soinu TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

impresion

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

**R
I
O
J
A**

GOSARIAK, HAMAIKETAKOAK, EGUNEKO MENUA
ASKOTARIKO KAZOLATXOAK, BOKADILDOAK
TORTILAK, PINTXOAK, TXERRI BELARRIA...

Erreserbak: 945 257082
Goizeko Setatik zabalik

NUEVO | BERRIA
Jatetxea eta taberna
Busturbi kalea 8
GAMARRA NAGUSIA

Eguna hilabete bihurtu dute

Joaldunak, dantza plaza, irakurketa taldea, ipuin kontalaria, bidaien inguruko proiektzioak eta zinema euskaraz ere gozatzeko aukera izango dute Añanako Kuadrillako herritarrek hurrengo hilabetean.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Abenduan zehar ospatuko dituzte Añanako Kuadrillako udalerrri desberdinetan Euskararen Egunarekin loturiko ekitaldiak. Igande honetan hasiko dira ospakizunak, abenduaren 1ean, Gaubean egiten den tokiko ekoizleen merkatu tradizionalarekin; eta abenduaren 22an itxiko dute egitaraua, Berantevillan.

Judimendiko Joaldunen Taldearen bisita izango dute gaubearrek abenduaren 1ean. 12:00etatik aurrera, sei urtetik gorako haurrentzat, joaldunen tailerra egingo dute Uribarri Gaubeako liburutegian; eta ordu erdi beranduago joaldunen kalejira hasiko da herriko frontoitik. Egun berezia izan ohi da, gainera, abenduko lehen igandea Uribarri Gaubean; izan ere, hilabetero haraneko tokiko ekoizleek eta artisauek antolatzen duten merkatura gonbidatu gehiago eta jarduera osagarriak eramaten dituzte.

Hurrengo geraldia abenduaren 3an dute, asteartean; egun horretan aurreikusita dute eskualdeko ikastetxeetan eta



Haurrentzako joaldun tailerra antolatu dute igandean Uribarri Gaubean. GOIAN

haur-eskoletan Euskararen Egunarekin batera hainbat ekitaldi eta tailer antolatzea. Hala, egingo dute, adibidez Ribabellosan, Iruña Okan eta Gaubean edo Berantevillan.

'Harriek kontatu didatena'

Abenduaren 13an, ostiralean, berriz, Uribarri Gaubeako

liburutegian hitzordu bikoitza dute aurreikusita. Izan ere, Eus-Karria irakurle kluba bilduko da, 18:00etatik aurrera, Goizalde Landabaso eta Garazi Goia idazleen *1.365 kilometro euri* liburuaren inguruan solasteko, eta ondoren, 19:00etan, toki berean Ane Gebara ipuin-kontalariak



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

Harriek kontatu didatena gazte eta helduentzako narrazio saioa aurkeztuko du.

Literaturarekin batera, zinema euskaraz gozatzeko aukera ere izango dute Añanako Kuadrillan; izan ere, abenduaren 18an, Berantevillan, euskarazko filma proiektatuko dute arratsalde partean.

Euskararen Jaia Berantevillan

Gabonetako jaiak hasi aurretik azken asteburuan, Espejo eta Berantevilla artean banatuko dira ekitaldiak. Hala, larunbatean, abenduaren 21ean, Espejoko gizarte etxean, Oskar Ezkerro gasteiztarra gonbidatu dute Atacamako basamortuan bizikletaz egin duen bidaiari buruz hitz egiteko. 18:30ean hasiko da proiektzioa eta mahai-ingurua, eta ondoren triki-bertso-poteoa egingo dute herrian.

Igandean, berriz, abenduaren 22an, Euskaren Jaia antolatu dute Berantevillan, goizetik. Taloak egiteko tailerra eta buztigintza lantegia egongo dira, baita Dantza Plaza saioa ere; gainera ardo beroa prestatuko dute herrikoek. ■■■



Eus-Karria irakurketa taldeko kideak Gaubeako liburutegian biltzen dira. E.U.

Lehen irakurle taldea sortu dute

Euskaraldiarekin batera sortu zen ideia, eta hortik abiatuta lehenbiziko hitzordua jarri zuten iragan irailean. Gaubeako haranari berari ere izena eman dion Karria edo Gobeaa haitzaren izena maileguz hartu dute irakurketa taldea bataiatzeko; Eus-Karria da hamabost bat lagunek osatzen duten Añanako eta Gaubeako lehen euskarazko irakurketa taldea. Modu horretan, espazio propio bat sortu dute eskualdeko euskaldunek hizkuntza eta literatura ezagupenak zabaltzeko. Gainera, eztabaida eta ideien trukaketa ere sustatzen dute, eta ez dute baztertzen bestelako ekimenak antolatzea. Irakurketaren zaletasuna zabaltzea da mundu osoan antolatzen diren irakurketa taldeen helburu nagusia; eta Euskal Herrian, askotan, horrelako klubak euskaraz irakurtzeko zabaltzen dira, jakinez pertsona askori zaila gertatzen zaiola hizkuntza horretan irakurtzea, eta Añanako kasuan, gainera, oso aukera gutxi dagoela euskaraz hitz egiteko.

EUSKARAK 365 EGUN

Alegria-Dulantzi

Dulantzin ere, nahi baduzu euskaraz

Alegria-Dulantziko Udala - Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi

Telf: 945 420 027 | Fax: 945 420 394 | aalegria.ayala@ayto.araba.eus | www.alegria-dulantzi.eus

Euskaraldirako prestatzen

Arraia-Maeztun larunbatera aurreratu dituzte euskararen aldeko ekintzak; Kanpezun abenduaren 3ko arratsaldean egingo dituzte. Datorren urteko Euskaraldirako prestatzen hasiko dira bietan.

MIRIAN BITERI

Arabako gainerako kuadrilletan bezala, Mendialdean ere askotariko jarduerak antolatatu dituzte datozen egunotarako euskararen normalizazioaren alde. Arraia-Maeztun, adibidez, ospakizunak asteburura aurreratzea erabaki dute Amezti euskara eta kultura elkarteak eta Udalak; larunbatean, azaroak 30, eguerdian emango diote hasiera egitarauari, Euskaraldiaren ekitaldiarekin. 2020. urterako prestatzen hasiko dira, herriko ludotekan. Desioak eta bizipenak jasoko dituzte, besteak beste.

Birgarako zentroan, bitartean, pintxo lehiaketa deitu dute. Parte hartu nahi dutenek pintxo bereziak prestatu beharko dituzte, eta izen "jatorra" jarrita, 15 ale eraman beharko dituzte zentrora. Mokadutxoan dastatzea egiten den bitartean, Iñaki Viñaspre eta Aroa Arrizubieta bertsolariek girotuko dute zentroa. Horrez gain, 14:00etan, bertso poteoa izango da Birgara zein Maeztuko tabernetatik.

Abenduaren 3an, arratsaldez

Kanpezun, bestalde, abenduaren 3an bertan ospatuko dute Euskararen Eguna, bertako Udalak eta Mendialde IPI-k elkarlanean. Arratsaldeko lehen orduan,



Pasa den urteko Euskaraldiaren aurkezpena, Arraia-Maeztun. ALEA



Dantza festa izango dute abenduaren 3an etxeko txikienean, Kanpezun. SUSTRAI DOINUAK

tailerrak eta jolasak izango dituzte ikastetxeko neska-mutikoek, eta handik irtetea, askaria plazako arkupetan. Jarraian, 17:30ean, Euskaraldiaren gaineko ekitaldia egingo dute: Arraia-Maeztun larunbaterako aurreikusita dutenaren antzekoa izango da: desioen sarea batera, mezua irakurriko dute, eta talde argazkia ere aterako dute. Dantza festarekin amaituko dute eguna, ludotekan; Sustrai doinuak arduratuko da etxeko etxeko txikienak dantzan jartzeaz.

Arraia-Maeztun eta Kanpezun ez ezik, Mendialdeko

KANPEZUN 239 LAGUNEK PARTE HARTU ZUTEN EUSKARALDIAN, ARRAIA-MAEZTUN 100 ETA URIZAHARREAN 41

bestelako herrietan ere euskararen aldeko jarduerak prestatzen ari direla azaldu du kuadrillako Euskara teknikari Belen Garulok: "Dena dela, oraindik zehazteke daude horietako asko, eta ezin aurreratatu. Ekitaldi xumeagoak izango dira horiek", azaldu du.

Datorren urteko Euskaraldirako prestatzen lan horietan, ziur pasa den urteak utzitako datuak ere aztertzen dituztela. Horren arabera, Kanpezun 239 lagunek parte hartu zuten (168 *ahobizi* eta 71 *belarriprest*); Arraia-Maeztun, 100 (70 eta 30); eta Urizaharrean, 41 (30 eta 11). Bernedo, Lagran eta Haranako daturik ez da ageri. ■

**E
D
E
N**


GOSARIAK, KAFETEGIA, PINTXOAK...
Astelehenetik ostiralera
7:30 - 21:30

Larunbatak
8:00 - 15:00

945 45 09 06
Panama kalea 18
PILAR auzoa
GASTEIZ



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea
LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA
ARRASATE AZAROAK 30
LARUNBATA 10:30
ORONA IDEO ABENDUAK 14
LARUNBATA 10:30
BILBO URTARRILAK 15
ASTEAZKENA 18:00
GOIERRI OTSAILAK 8
LARUNBATA 10:30
HIRIETAN AURKEZPENAK:
DONOSTIA ABENDUAK 11 18:00
Kursaal Jauregia

EKINTZAILETZA
OÑATI AZAROAK 30
LARUNBATA 11:00
BILBO ABENDUAK 12
OSTEGUNA 18:00
BIDASOA ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00

ENPRESA KUDEAKETA
OÑATI AZAROAK 30
LARUNBATA 11:00
BILBO ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00
BIDASOA ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00
HEZKUNTZA
ESKORITATZA ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00
BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00
KOMUNIKAZIOA
ARETXABALETA ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00
BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00
HUMANITATEAK
BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00
GASTRONOMIA
— Basque Culinary Center
DONOSTIA ABENDUAK 14
LARUNBATA 10:30

Etorriko zarela jakinarazili
www.mondragon.edu/prest

Udala, bustitzeko prest

Aurrenekoz, Euskararen Egunaren harira, Trebiñuko Udalak barne funtzionamenduan eta kanpora begirako jardueretan euskara sustatzeko eta erabiltzeko mozioa onartu du.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Trebiñuko Udalak bere barne funtzionamenduan zein kanpora begirako ekimenetan euskara sustatzeko, babesteko eta erabiltzeko konpromiso instituzionala jasotzen duen mozioa onartu du. EH Bildu, AICT, EAJ eta CPT taldeen sei botoekin aurrera ateratu da, aurrenekoz, Trebiñuko Udalak euskararen normalizazioaren alde egiten duen adierazpen instituzionala. PPK eta CDCK kontra bozkatu dute.

Argantzongo Udalak mozio bera eztabaidatuko du azaroaren 29ko osoko bilkuran. Indar politikoen korrelazioa ikusirik –EH Bilduk 3, EAJk 3, PPK 1– litekeena da aurrera ateratzea.

Adierazpen instituzionalak hamazortzi puntutan jasotzen du Udaletik kanpo zein barruan euskararen erabilerrarekiko konpromiso argia. Hala, Udalerri dagokionez, besteak beste, administrazio publikoko kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea onartu dute; eta

halaber, haien komunikazioetan eta gainerako entitate, hornitzaile eta elkarteekin euskara gero eta gehiago erabiltzeko konpromisoa hartu dute.

Modu berean, euskararen erabilera sustatzen duten tresnak bultzatuko ditu Trebiñuko Udalak. Gainera, UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) babestea, indartzea eta hedatzea erabaki dute zinegotziek.

Euskara, esparru guztietan

Udalak erabiltzen dituen komunikabide guztietan euskararen erabilera eta presentzia bermatuko dute; eta gainera, euskarazko tokiko hedabideen iraunkortasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko hainbat urtetako hitzarmenak sustatuko dituzte.

IKASTETXE PUBLIKOAK IRAKASKUNTZA EUSKARAZ EMAN DEZAN LAN EGINGO DU UDALAK

Beste esparruetan ere bultzatuko dute euskararen erabilera. Hala, kirolaren euskalduntzean lan egitea erabaki dute, "federazioarekin eta tokiko klubekin lankidetzan". Halaber, gazteentzat euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzeko egingo dituzte; euskararen erabilera eta transmisioa bultzatuko dute familien artean, eta migratzaileei laguntzeko lerroak aktibatuko dituzte, "euskara ikas dezaten eta euskal kulturara hurbil daitezen". Gainera, erreferentziak ikastetxe publikoak irakaskuntza euskaraz eman dezan lan egingo du Udalak.

Halaber, Trebiñun ere azterketa soziolinguistikoa EAEko gainerako udalerrien aldezakotasun berarekin egiteko eskatuko du Udalak, hau da, bost urtean behin; eta, jakina, Trebiñu Araban integratzearen alde lan egitea onartu dute, "hizkuntza-normalizazioari bide emateko, Arabako gainerako udalerrien antzeko baldintzetan". ■

**ATE IREKIAK**
abenduaren 10etik 12ra

DBH

**Asteartean ARRIAGAN - Asteazkenean NIEVES CANOn -
Ostegunean JESUS OBREROn
18:00etan**

EUSKARALDIA

ARRIAGA - JESUS OBRERO - MENDIZORROTZA - MOLINUEVO - NIEVES CANO www.egibide.eus

ZINEMA ETA MEMORIAK

ZIRELAKO

*Partekatu zeure historia
film laburren emanaldian
abenduaren
6a baino lehen*

Parte hartu!

Sortzaileen lana, ikastetxera

Oiongo Ramiro de Maeztu ikastetxean lantzen ari diren hezkuntza egitasmoaren barruan, euskal sortzaileen lana ikasleei gerturatzeko saiakera egin dute; amaiera gisa liburu azoka antolatu dute.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Handitzen handitzen Oiongo Ramiro de Maeztu ikastetxeak 2018-2019ko ikasturtean aurrera eraman duen proiektua da; eta 2019-2020 ikasturtean, bigarren urratsa egiten ari dira *Handitan zer?* egitasmoarekin. Horren harira, euskal idazleen eta sortzaileen lana ikasleei gerturatzeko lana egin dute urteko lehen hiruhilekoan.

Abenduaren 13an, I. Liburu Azoka egingo dute ikastetxean, eta horretan musikariak, idazleak eta sortzaileak biltzeko saiakera egiten ari dira.

Dagoeneko azokan izango direla ziurtatu dute ETS taldeko Iñigo Etxe, eta Andoni Bonafau musikariek, eta aste honetan izan dute Edurne Maiona Bastidako idazlearen bisita ikastetxean. Toti Martinez de Lezearekin eta Joxe Mari Iturralderekin ere harremanetan dira azokara hurbiltzeko.

Gainera, azoka sustatzeko bideo-klipak bidaltzeko gonbitea ere luzatu diete euskal sortzaileei, eta Kirmen Uriberenak eta Erramun

Martikorenarenak jaso dituzte. Ramiro de Maeztuko ikasketa buru Kimetz Martinezek azaldu duenez, "Oiongo errealitate linguistikoa kontuan hartuta, autore desberdinei eskatzen diegu ekarpen txiki bat egiteko eta egiten duten lana ikasleei gerturatzeko. Hemengo ikasle askok ez dakite Mikel Laboa edo Xabier Lete ere nortzuk diren".

Durangora bidaia

Oiongo I. Liburu Azokaren aurretik, abenduaren 5ean, Durangoko Liburu eta Disko Azokara bidaia egingo dute 4. ikasturteko ikasleek. Ikasle Goizaren barruan antolatu diren tailerretan parte hartzeko aukera izango dute, eta gainera, Oiongo I. Liburu Azokaren kartela aurkeztuko dute bertan.

**AZOKA SUSTATZEKO
BIDEO-KLIPAK
BIDALTZEKO GONBITEA
ERE LUZATU DIETE
EUSKAL SORTZAILEEI**

Abenduaren 13an, berriz, Elkar argitaletxeak, Ramiro de Maeztuko gurasoen elkarteak eta Riojako ikastetxeeko gurasoen elkarteak stand bana jarriko dute; eta saiatzen ari dira beste talde batzuen parte-hartzea izaten. Liburuak trukatzeko edo erosteko bonuak ere egingo dituzte.

Ramiro de Maeztu ikastetxearen klaustroak eta guraso elkarteak iragan ikasturtean erabaki zuten Euskara, Ingurumena eta Gizarteko ikasgaiak batu, editorialeko liburuak kendu eta proiektuen bidez, gai horietan konpetentziak garatzea. Modu horretan, euskarazko komunikazioan hobetu nahi dute, umeen gaitasunak garatu, eta ikasleen aniztasunari erantzun, inklusioaren printzipioak jarraituz.

Ikasturte honetan *Handitan zer?* izenburua jarri diote proposamenari. Hiruhileko bakoitzean gai orokorra proposatu da ikastetxe osorako, eta gero gela bakoitzak bere ildo jarraituko du bere proiektuan. Euskal sortzeileena izan da landutako gai bat. ■

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK	
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	

Albisteeek literaturari lekua

Zazpi idazle arabarren idazlanez osatutako liburuxka berezia argitaratuko du Arabako ALEAk Euskararen Egunaren bueltan; horiek aurkezteko irakurraldi publikoa egingo da Oihaneder Euskararen Etxean.

ANAKOZ AMENABAR GASTEIZ

Euskararen Nazioarteko Eguneko ospakizunak aitzaki, asteroko albiste zurrunbilotik fikziorako jauzia egingo du Arabako ALEAk datorren asteen. Bertako idazleen eskutik, asteroko erreportaje eta elkarrizketek literaturari egingo diote lekua 218. zenbakian, idazlan laburrez osatutako liburuxkarekin.

Iban Zaldua, Karmele Jaio, Katixa Agirre, Mikel Ayllon, Beñat Goitia, Elisa Rueda eta Edu Zelaieta idazleen eskutik, pasaia, istorio eta gogoeta desberdinetan murgilduko da irakurlea, Jon Gil ilustratzaileak sortutako irudiek lagunduta. Iraultzak, sexuak, segregazioak, aniztasunak, naturak, hitzak eta euskarak berak ere eramango ditu irakurleak batetik bestera.

Irakurraldi publikoa

Abenduaren 3an izango da horiek deskubritzeko aukera, Oihaneder Euskararen Etxean egingo den ekitaldian. Zazpi idazlanen irakurraldi publikoa egingo da han, 10:00etatik aurrera, beste hainbeste lagun



Abenduaren 3an egingo da 'Arabako pasarteak' izeneko liburuxkaren aurkezpena. ALEA

ezagunen eskutik; kultura, kirola eta gizarte arloko hamalau lagunek irakurriko dituzte, euskal komunitate pluralaren erakusgarri. Irakurraldia entzuteko bertaratu nahi dutenek info@alea.eus helbidean eman dezakete izena.

Irakurraldira gerturatzeko aukerarik ez dutenek, baina, idazlanak etxean jasotzeko aukera izango dute, liburuxkaren banaketa zabala egingo delako hurrengo

egunetan, ALEAren harpidedunei eta ezohiko guneetan ere bai.

Liburuxka eta irakurraldiaren bitartez, "euskal komunitatea bizirik" dagoela nabarmendu nahi du ALEAk. "Bertako kultur sorkuntzaren balioa azpimarratu eta lankidetzaz zein kolaborazioan oinarritutako lanaren emaitzak zein oparoak izan daitezkeen irudikatu nahi dugu", adierazi du Aritz Martinez de Luna ALEAren zuzendariak. ■■■



Ziberasteak!

APROBETXATU GURE PROMOZIOAK
ABENDUAREN 9ra ARTE



OTORDUA

Cookieak txokolate pipitekin (25 inguru)



Osagaiak

- Gari-irina, 175 gr.
- Legamia-hautsa, 1,5 gr.
- Gurin bigundua, 115 gr.
- Kanaberako azukre beltza, 100 gr.
- Azukre arrunta, 75 gr.
- Arrautza, 50 gr.
- Hur arinki txigortuak, txikituak eta lodiak, 30 gr.
- Intxaur, txikituak eta lodiak, 85 gr.
- Txokolate beltza, 200 gr.
- Gatz pixka bat

Prestaketa

1. Aurretik labea 180 °C-tara berotu. Labeko erretilua prestatu laberatzeko paperarekin.
2. Irina bahetu, legamia eta gatzarekin ontzi batean.
3. Jarri gurina, bi azukreekin batera, beste ontzi batean, eta irabiatu trinkotasun arina eta harroa lortu arte. Gehitu arrautza eta ondo nahastu.
4. Gehitu irina, fruitu lehorrak eta txokolate zatiak, eta dena ondo nahastu.
5. Orearekin bolak egin, ez oso handiak, eta utzi haien artean leku nahikoa, zabaltzen direnez, ez batzeko.
6. Egosi 180 °C-tara 12 minutuz. Denbora horiek gutxi gorabeherakoak dira, labe bakoitza desberdina delako. Zenbat eta gehiago laberatu, gogorrago geratuko dira.
7. Ateratzeko orduan, bigun badaude ere, hozten direnean gorputza hartuko dute.

artepan

Araban da, baina... zer herritan dago baseliza hau?

IKA EUSKALTEGIA



ALEAren irakurle guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Araban da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Datozen asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai ALEA aldizkarian. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzuenon artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun euskaltegien arteko finalean. ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:
alea.eus/bereziak/ika31

EUSKARAK
365
EGUN

M **Mendia**
Optika
www.mendiaoptika.eus

AGENDA

Azaroaren 29tik abenduaren 12ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Aire Ahizpak

'Bidexka' diskoa aurkeztuko dute.
Larunbata 30, 20:30etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Roman eta Julieta'

Jose Ramon Soroiz, Tanya de la Cruz, Ainhoa Aierbe, Asier Sota eta Alazne Etxeberria aktoreekin.
Asteazkena 4, 20:30etan, Principal Antzokian.

DANTZA

OZETA 'Gorpuztu'

Garazi Lopez de Armentia, Yolanda Bustillo, Cristina Samaniego, Nera Alberdi eta Carla Sevilla artistekin.
Igandea 1, 13:00etan, Garaion Sorgingunean.

BERTSOLARITZA

LAUDIO Bertso saioa

Miren Amuriza, Igor Elortza, Onintza Enbeita eta Aitor Sarriegi bertsolariekin.
Ostirala 29, 19:00etan, Lamuza parkeko Kasinoan.

GASTEIZ Euskal Mendi Selekzioaren jaialdia

Fredi Paia, Oihane Perea, Aroa Arrizubieta eta Iñaki Viñaspreekin.
Larunbata 30, 19:00etan, Falerina tabernan.



SUSA

GASTEIZ 'Gela bat norberarentzat'

Uxue Alberdi idazle eta bertsolariarekin solasaldia. 'Kontrako ezarririk' saiakera liburua aurkeztuko du; emakume bertsolariek jasaten dituzten eraso sexistak bildu ditu, hamabost elkarrizketaren bitartez jasotako lekukotasunekin.
Asteazkena 11, 19:00etan, Iparralde gizarte etxean.

GASTEIZ Bertso jaialdia

Maddi Aiestaran, Ane Beloki, Aimar Sorazu eta Aitor Tatiegirekin.
Larunbata 30, 20:00etan, Hala Bedi tabernan.

GUARDIA 'Erradikalak ginen'

Emanaldi berezia, Ane Labakarekin.
Larunbata 30, 19:00etan, Herriko Antzokian.

HAURRAK

URIBARRI GAUBEA Joaldunak

Umeentzat joaldun tailerra antolatuko dute. 6 urtetik gorakoentzat. Ondoren, Judimendiko joaldunen kalejira izango da.
Igandea 1, 11:30etik aurrera, liburutegian eta frontoian.

GASTEIZ 'Iraungorriko Marimiri'

Zurrunka taldearen eskutik. Txotxongilo eta itzal ikuskizuna. 4 urtetik gora.
Igandea 1, 17:30etan, Salburuko gizarte etxean.

Jimmy jazz gasteiz

AZAROA

Ot. 28 IZAN ZAITEZ NEU: GARI + LIBE + ANARI + JON BASAGUREN

Os. 29 BOOZE & GLORY + GIUDA + ANALOGS

Lr. 30 EL DROGAS #SOLDOUT

JIMMY JAZZ ERE EUSKARALDIAREKIN BAT

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM




Abendua

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

2019

04 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



Hikuntza: fantasia

Ma Vie de Courgette

Aukeraketa: Paul Urkijo

Filmazpit, zinema jatorrizko bertsoan euskarazko azpituloeekin

Filmazpitekin elkartanean

10 as. | 18:00 Ikastaroa



Izen-ematea: oihaneder.eus (abenduaren 9a arte)

Ume Sorosleak

Arabako Erakunde Sanitario Integratuarekin elkartanean

11 az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa

**Zortzi Yukon**

Maitin Zeberio

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa

GEU Elkartearekin elkartanean

15 ig. | 19:00 Ikuskizuna

HÖGEITAVÅT

Izen-ematea: oihaneder.eus (abenduaren 11a arte)

Högeitavåt. Mendeko emanaldi poetikoa

Inigo Astiz eta Mikel Ayerbe

Saski Naski, sorkuntza artistikoen oitza

19 og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Tabernan

Maria Rivero & Tribu Banda

Kintsukoroi

Eskilarapeko Soinuak, formatu txikiko kontzertuen zikloa

2020ko urtarrilak 02 eta 03

Familia jarduera

Gabonetan jai!

Izen-ematea: oihaneder.eus (Abenduaren 10a arte)

2020/01/02 • og. 12:00

EZTA PENTSATU ERE!

Benetan Be

+4 urte - 50"

Antzezana

2020/01/03 • or. 11:00

PLISTI-PLASTA

Pantzart

1-3 urte - 35"

Antzezana

2020/01/03 • or. 12:30

AMILAMI

Pantzart

+4 urte - 60"


Ipuin kontaketa musikatua

UR BILTEGIAN

- Ateak 15 minutu lehenago irekiko dira.
- Ekimena Goian Proiektuarekin elkartanean antolatuta da.
- Saio guztietarako izena eman beharko da.

Azaroak 07 > Urtarrilak 07

Deialdia

**Batera, kultur proiektuak elkarrekin**

- Crowdfunding-ean laguntza eta 2000 €-ko ekarpena
- 16-35 urte bitarteko gazte gasteiztarrentzat
- Proposamenak bidaltzeko: oihaneder@oihaneder.eus

Info +:

itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

oihaneder.eus

Froy Zacarias Martinez, 2 • Vitoria-Gasteiz

LAGUNTZAILEAK

Diario**ALEA****berria****radio vitoria**

ANTOLATZAILEA

**OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA**
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIAAyuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



arte

Abenduak 3

zer moduz?

Euskararen
Nazioarteko Eguna

zen!

Barkatu,
zer ordu da?

Kafesnea,
mesedez...

Maialen naiz

ESAN?

Egun on

Etorriko
haiz?

lehen hitza...
euskaraz

Mesedez,
laguntzarik
bai?

goa
da
dez?

araba  álava
foru aldundia diputación foral